EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna EUSKO JAURLARITZA
Organismo Autónomo del GOBIERNO VASCO

# LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILA

# 6. UNITATE DIDAKTIKOA: BERDINTASUNEZ ETA KIDETASUNEZ BIZI FAMILIAN

# GAI ZERRENDA



## HEZKIDETZA

- Irakaslearen gida

## MATERIALA

- "Bihotz minez" jolasa
- "Hitz katea" jolasa
- Ikasleen koadernoa
- Familien koadernoa

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

# HEZKIDETZA, BERDINTASUNERAKO HEZIKETA

**Ikasle oro, neska nahiz mutil, generoko rolik gabe: bizitzaren arlo guztietan pertsona osoak eta autonomoak.**

**Giza Eskubideetan oinarritutako harremanak.**



## BERDINTASUNA:

- **Ikasle guztiek, neskek zein mutilek, norbere autonomia, pertsonen arteko tratu onak eta erabateko hiritartasuna lortzeko heziketa eduki dezaten.**
- **Errespetuz eta indarkeriarik gabe hazi, sentitu, ekin, ikasi, erabaki eta elkarbizi daitezen.**

→ **Nahiz arlo pribatuan nahiz publikoan Giza Eskubideak errespetatuz bizi eta elkarbizi daitezen.**

→ **Arazoak eta auziak biolentzia-eza erabiliz konpondu ditzaten.**

→ **Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egin dezaten.**

# LEHEN HEZKUNTZAKO HIRUGARREN ZIKLOA

## NAHIKO! 5-6 Logoa

Emakumeen aurpegi erdi gorria. Desberdintasunengatik eta tratu txarrengatik triste.

Emakumeen aurpegi erdi berdea. Berdintasunagatik eta tratu onengatik alai.

HELBURUA: aurpegi berdeak egon daitezen portaerak identifikatu eta garatu.

## BIZITZARAKO PROIEKTU INTEGRAL PROPIOA

- Pertsona osoak eta autonomiadunak bizitzaren esparru guztietan:
  - Esparru publikoan eta pribatuan.
  - Zainketaren arloan eta ekoizpenean.
  - Familian eta gizartean.
  - Afektuetan eta kudeaketan.
- Norberaren bizitzan, familian, lanean, gizartean, eskolan, kirolean, kulturan, politikan eta abar, tratu onak eta Giza Eskubideetan oinarritutako harremanak.













EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

# LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILA

| UNITATEAK | JOLASAK |
|---|---|
| 4. Ez naiz bakarrik bizi. | Kanta bizi-biziak. Maite al nauzu?. Nork bere bidea. Pertsonaia bikainak, zineman bakarrik? |
| 5. Giza eskubideen proiektua familian | Familiako giza katea. EMA.S.O.S. |
| 6. Familian berdintasunez bizitzea | Hitz katea. Bihotz minez |

## 6.UD, FAMILIAN BERDINTASUNEZ BIZITZEA

- Eguneroko familia-elkarbizitza, berdintasunerako eta Giza Eskubideetarako, errespeturako, tratu onak jasotzeko eta elkar zaintzeko.
- Familia proiektu komun gisa, kide guztien bizitza proiektu pertsonalak errespetatu, bultzatu, ahalbidetzen eta laguntzen duen proiektua.



# IRAKASLEEN FORMAKUNTZA

## IRAKASLEAREN GIDA

1. Helburuak eta edukiak
2. Materialak eta ekintzak
3. “Familiaren hitz katea, familia giza katea - 2” jolasa
4. “Bihotz minez” aholkularitza sentimentala
5. Ikaslearen koadernoa
6. Familiaren koadernoa



# 6. UNITATE DIDAKTIKOA

## BERDINTASUNA ETA TRATU ONAK SORTZEN DITUZTEN FAMILIAK

- **Hurbileko familiak eta bikote-harremanak aztertzea, berdintasunean, Giza Eskubideetan eta erantzunkidetasunean oinarritzen direnak identifikatzeko.**
- **Emakumeen eta gizonen Giza Eskubideak errespetatzen dituzten hitz eta portaerak, bikote-harremanak eta familia-harremanak ezagutzea.**
- **Familiako tratu onetara eramaten gaituzten jarrerak eta portaerak identifikatzea, positiboki baloratzea eta garatzea.**

### 3 NERE BIKOTEARI MAITASUN KANTA

Egunen batean bikotea baduzu eta bikotearekin bizitzea erabakitzen baduzu, eguneroko bizimodua elkarrekin eginez, nola adieraziko diozu zure maitasuna? Zein elkarbizitza proposamena egingo diozu? Zer bizitza proiektu amankomuna eraikiko duzu berarekin?
Adierazi ezazu hori guztia kantu bat eginez. Har ezazu zure gustuko kantu baten musika eta idatzi egiozu hau guztiarekin letra berria zure hitzekin. Idatz ezazu, soinu ezagun bat erabiliz, zure bikoteari eskainiko diozun maitasun kanta.





### 3 FAMILIA AKORDIO BERRIA

Bi urte hauetan tratu txarren prebentziorako giza eskubideen proposamena aldarrikatu dugu gure etxeko harremanetarako. Baita ere, noski, beste esparruetarako: gure buruarekiko, gizartean eta lan munduan. Soilik Giza Eskubideek uxatu ditzakete tratu txarrak gure familiatik, gure familia eta gure harremanak tratu on eta zorioneruntz eramanez.
Horrek eguneroko bizitza moldatzea eskatzen digu, familia akordio eta bizimodu berri bat bizitzen hastea eskatzen digu, berdinen artekoa, berdintasunean, emakumeen bereizkeririk gabe. Has gaitezen gaur bertan. **ONDO BIZI!**

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO

# BERDINTASUNEZ BIZI FAMILIAN

## GIZA ESKUBIDEETARAKO ETA TRATU ONETARAKO HITZEZ ETA PORTAEREZ BETETAKO ETXE BAT

- Familia-etxebizitza, familia-proiektua partekatzen duten emakume eta gizonen berdintasuna eta Giza Eskubideak errespetatuz elkarbizitzen lagunduko duten hitz positiboez betetzea.
- Berdintasunaren ikuspegitik, neska eta mutil gazteen arteko harremanak aztertzea eta balioestea. Identifikatu zein nahiko lukeen beraientzat ikasleek eta zergatik.
- Une honetan familia-bizitzan dituzten gauza onak ezagutzea, ongi bizitzen eta hazten laguntzen dietenak. Gauza horiek baloratu eta eskertzea, eredu eta etorkizuneko familia-proiekturako erreferentzia gisa identifikatzea.

### GIZA ESKUBIDEAK

POZA, ZORIONTASUNA
SAMURTASUNA
MAITASUNA
KONPAINIA, PLANAK
AUTONOMIA, LANAK
FESTAK, OSPAKIZUNAK
ELKARREKIKO
ZAINKETA, ARDURAK
ERANTZUNKIDETASUNA
DENBORA, ENTZUTEA
ENPATIA, ANIZTASUNA
ERRESPETUA
ASKATASUNA



# HIRUHILEKOAREN ANTOLAKETA



Unitate didaktikoaren materiala hiruhilekoan zehar erabili

## PAUSOAK

→ Asteroko saioetan ikasleekin:

- "Bihotz minez" jolasa ezagutu, landu eta jolastu.
- "Hitz katea" jolasa ezagutu, landu eta jolastu.
- Ikasleen koadernoa bete, jolasak barneratzeko. Zatika egiten joan daiteke.

→ Eskolan landu ondoren:

- Familien koadernoa etxera bidali etxekoekin landu, hausnartu eta partekatzeko. Zatika egiten joan daiteke.
- Ez da "etxeko-lana", ez da eskolan "zuzenduko". Erabileraren eta etxean lortutako giroaren jarraipena egingo da.

# ONLINE JOLASAK




## JOLASTU, BIZIARAZI, AZTERTU, HAUSNARTU:

- Lan-talderako materialak.
- Eguneroko egoerak, sentsazioak, bizipenak, sentipenak, harremanak... biziarazi eta gogoratu.
- Galdetu, aztertu, hausnartu, ulertu, eztabaidatu, adostu, iradoki, aldatu...
- Ondorioak, alternatibak, aldaketak...

## JOLAS BAKOITZAK 3 ATAL:

- Hasierako tutoriala (azalpena)
- JOLASA
- Bukaerako laburpena (hausnarketa)



# HASIERAKO TUTORIALA




## ERABILERA:

- Jolasa ezagutzeko.
- Non dago tutoriala?
  - Lehenengo zikloko jolasetan (LH1 eta LH2) irakasleari alta ematerakoan azaltzen da.
  - LH3tik aurrera berriz, ikasle bezala alta ematerakoan azaltzen da.
- Lehen partidetan talde osoarekin erabil daiteke eta gero taldeka edo banaka.
- Tutoriala saltatzeko aukera dago botoi gorriari emanez. Adibidez, jolastu den lehen partidetan jadanik tutoriala egin bada eta jolasa jadanik ondo ezagutzen denean, ez da beharrezkoa berriro egitea.

# BUKAERAKO LABURPENA




## ERABILERA:

- Partidaren emaitzak aztertzeko eta kontzeptuak finkatzeko.
- Non dago laburpena?
    - Jokalari bakoitzari azaltzen zaio partida amaitzerakoan.
- Lehen jokaldietan talde osoarekin erabil daiteke eta gero taldeka edo banaka.
- Laburpeneko galdera batzuk jolastutako partidaren araberakoak dira.

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

# ONLINE JOLASEKIN JARDUERAK







## 1.- JOLASTU AURRETIK, JOLASA EZAGUTU:

- Kartak eta fitxak ezagutu, marrazkien eta hitzen esanahia argitu…
- Irizpide anitzak erabiliz fitxak antolatu eta sailkatu. Pertsonaien ezaugarri komunak edota ezberdinak identifikatu.
- Kartak kopiatu eta hormairudiak egin elkarren artean erlazionatuz, osatzen dituzten testu edo irudiak gehituz. Egungo albisteekin edota gertaerekin erlazionatu.
- Nork bere burua edota beste pertsonak errespetuz ezagutu eta deskribatzeko hitzen zerrenda osatu. Erabiltzen al ditugu hitz batzuk neskentzat eta beste batzuk mutilentzat? Zergatik?
- Hitz berrien hiztegi txikia egin. Hiztegia irudi, adibide, egoera edo esaldiekin lotu…
- Karta edota fitxa berriak sortu.

## 2.- JOLASTU ONDOREN, HAUSNARTU:

- Egindakoa aztertu, zalantzak argitu…
- Jolas amaierako online laburpena bete.
- Ezkerreko laukiko ariketak egin.
- Ikasleen koadernoko ariketak egin.

# 6.UD-KO JOLASAK

- "Hitz- katea" jolasa.

- "Bihotz minez" aholkularitza sentimentala.




BIHOTZ MINEZ

Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez

Representad esta situación dándole continuidad

Aholku - 6

Aupa! Aholku bat behar dut neska bati buruz.

Aspalditik ezagutzen dut, baina orain dela gutxi arte berarekin bakarrik hitz egin gabe nengoen. Nere ezagun eta lagun batzuekin ibilitakoa da lehenago eta horrek atzera botatzen nau. Badakit esaten dutenaren erdia gezurra izango dela, neskak utzi zituelako amorru-hitzak izango direla, baina hala ere... zer pentsatuko du jendeak? Ni ere ibilia naiz beste bi neskekin aurreko urtean, baina mutiletan ezberdina da. Ala ez?.

Gauza da atentzioa deitu didala. Ezin dut burutik kendu eta barre egiteko duen modu horrek zoratu egiten nau. Hitzik gabe ulertzen garela dirudi eta askotan berdin pentsatzen dugula iruditzen zait. Baina beldur naiz, berarentzako beste bat baino ez ote naizen izango eta ni ere utziko ez ote nauen. Nola erabaki dezaket zer egin? Nola jakin dezaket zer nahi dudan? Nola somatu berak nahi duena?

Buenas, necesito un consejo sobre una chica.

La conozco desde hace mucho, pero hasta hace poco no había hablado a solas con ella. Ella ha salido con algunos amigos y conocidos míos antes de ahora y eso me da qué pensar. Ya sé que lo que cuentan éstos será mentira y venganza porque ella les dejó, pero... ¿Qué va a pensar la gente de mí? Yo también he salido con dos chicas este último año, pero el caso de los chicos es diferente, ¿no?

La cosa es que me he fijado en ella. No me la puedo quitar de la cabeza y me encanta su forma de reír. Parece que nos entendemos sin palabras y, a veces, que pensamos lo mismo. Pero tengo miedo de si no seré uno más para ella y si no me dejará también a mí. ¿Cómo puedo decidirme? ¿Cómo puedo saber qué hacer? ¿Cómo puedo saber lo que ella quiere?

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# "HITZ-KATEA" JOLASA

**Taula honetan berdintasunean eta Giza Eskubideetan oinarritutako elkarbizitzarako funtsezko hitzak osatzea**




## ADIBIDEZ

**NI-NEU:**
autonomia, osasuna, autoestimua, ikasi, zoriona, konfiantza, indarra, adorea, dirua, kemena, sentimenduak, adimena, sormena, alaitasuna...

**FAMILIA:**
maite zaitut, barkatu, denbora, egun on, errespetua, ondo egin duzu, zurekin gaude, muxu, babesa, barre, giza eskubideak, poza, goxo...

**GIZARTEA:**
lagunak, elkartea, festa, babesa, kideak, erakundeak, telefonoa, bidaiak, hizketa, udala, epailea, laguntza, harremanak, sarea, besarkada, pertsonak...

**LANA:**
prestaketa, lana, hobekuntza, oporrak, baja, lanpostua, ogibidea, soldata, lanbidea, lankideak, formazioa, ikasketak, hizkuntzak...

# JOLAS ARAUAK 1




## JOKOAREN DINAMIKA

**Dadoan sakatu. Dadoaren balioak behean eta ezkerraldean agertuko diren letra berrien kopurua emango du. Letrak zoriz banatzen dira.**

**Hitzak osatu, behealdeko letrak eta oholtzan jada jarrita dauden letrak erabiliz.**

**Letra bat jartzeko: sakatu gainean eta, ondoren, sakatu taula gainean jarri nahi duzun laukitxoa. Letrak ezin dira jarri "SUKALDEA", “LOGELA", etab. izen/errotuluen gainean**

**“BALIDATU“ botoia klikatu, irakasleak (edo parte hartzaileen multzoa) osatutako hitza balioztatu dezan. Emandako hitza zuzen balioztatzen denean, lortutako puntuazioa agertuko da.**

**Azkenik, txanda amaitzeko, "PASA" botoia sakatu.**

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO




# JOLAS ARAUAK 2

## OSATUTAKO HITZA BALIDATZEA

**Hitza zuzentzat emateko: hitzaren letra guztiak sakatu, berde koloretan jarriz, eta "ERANTZUN" botoia sakatu. Lortutako puntuazioa agertuko da.**

**Hitza zuzena ez bada, sakatu "ERANTZUN" botoia letra bat ere sakatu gabe. Jarritako letrak jokalariari itzuliko zaizkio.**

tratu txarrak NAHIKO! maltrato 5-6 kidetasunez bizi vivir entre iguales

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# JOLAS ARAUAK 3

**Hitzak eta batera idatzitako hitz-kateak ("kideona") osa daitezke.**

## Adibidea






**LAGUNA**
**LAGUNSAREA**
**LAGUNMINA**
**MAITEZAITUT**
**ONDOEGINGODUZU**
**ESKERRIKASKO**

* Online jolasaren tutorialean zehatz-mehatz azalduta

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO

# "BIHOTZ MINEZ"



# BIHOTZ MINEZ

Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
Representad esta situación dándole continuidad

## Aholku - 1

Kaixo, mutil batek berarekin irtetzeko eskatu dit eta zalantzaz beterik nago.

Alde batetik gustokoa dut. Altua eta guapoa da, arrakasta handia du nesken artean. Oso alaia da, beti dago txisteak egiten eta adarra jotzen jende guztiari. Edozein tabernan edo kalean bertan, segituan hasten da guztiekin brometan. Berarekin oso ondo pasatzen dut. Beno, egia esateko, ez beti. Batzuetan pasa egiten da bere broma eta ziriekin eta batzuk haserretu egiten dira berarekin.

Bestalde, nerekin ez duela apenas hitz egiten konturatu naiz. Beti besteekin hitz egiten du, besteak zirikatzen ditu. Nik barre egiten dut, ondo pasatzen dut, baina ikusle bat bezala naiz. Eta, egia esateko, ez dakit benetan nola pentsatzen duen, zer sentitzen duen... ez dudala ezagutzen iruditzen zait, ez dugula serio hitz egiten.

Zer erantzungo diot? Baietz? Erantzun azkar, mesedez.

¡Hola! Un chico me ha dicho para salir con él y tengo muchas dudas.

Por una parte, me gusta. Es alto y guapo, tiene mucho éxito entre las chicas. Es muy alegre, siempre está contando chistes y tomando el pelo a todo el mundo. En la calle o en los bares, enseguida bromea con la gente. Me lo paso muy bien con él. Bueno, siempre-siempre, no. A veces se pasa tres pueblos con sus bromas y sus comentarios, y la gente se enfada con él.

Lo que pasa es que, por otro lado, me he dado cuenta de que apenas habla conmigo. Siempre habla y bromea con la gente, no conmigo. Yo me río mucho y me lo paso bien, pero es como si fuera una espectadora. La verdad es que no sé cómo piensa y cómo siente de verdad. Me parece que no le conozco, que nunca hablamos en serio.

¿Qué le contesto? ¿Que sí? Contestad rápido, por favor.

**IKASLEEK ANTZEKO BESTE EGOERA BATZUK PLANTEATZEKO EREDUAK**

## PDF BERTSIOA
## EZ DAGO ONLINE BERTSIOA

**27 Antzerki/irrati-gidoi edo kontsulta, aztertzeko eta eztabaidatzeko, erantzuna emateko, aztertzeko, osatzeko, antzezteko, marrazteko, idazteko ...**

**Gidoi bakoitzak aholkua edo gomendioa eskatzen du, eta harreman afektiboetan eman daitekeen kasu edo egoera bat islatzen du.**

## JASO DIREN KONTSULTAK

**1. Mutil batek berarekin irtetzeko eskatu dit eta zalantzaz beterik nago.**

**2. Neska batekin hasi naiz eta gustatzen ez zaidan zerbait gertatzen ari zait. Batzuetan agobiatuta sentitzen naiz.**

**3. Orain dela bi hilabete mutil batekin hasi nintzen eta zalantza bat dut. Aspertu-edo egiten naiz.**

**4. Nire neska-lagunarekin arazoa dut. Berak beti gauza bera egiten dugula esaten dit, eta beti nire kuadrilarekin.**

**5. Lagun batek nire egoera ez dela ona esan dit. Nire nobioak opari asko egiten dizkit, lana ere aurkitu dit eta nire ikasketak utzi ditut, horrela egun osoa elkarrekin egoten gara.**

# IKASLEEN KOADERNOA

**Landutako jolasei buruzko ariketak**










## HITZ EGIN, HAUSNARTU, BARNERATU, LABURTU:

- Hitzak eta marrazkiak markatu (“X” idatzi…).
- Hitzak marrazkiekin lotu. Irudiak gehitu…
- Galderak erantzun. Testuak idatzi…

# FAMILIEN KOADERNOA

## Landutako jolasei buruzko ariketak




**PDF betegarriak**

## HITZ EGIN, HAUSNARTU, ADOSTU:

- Hutsuneetan hitzak idatzi. Irudiak gehitu...
- Fitxak osatu. Testuak bukatu. Galderak erantzun...
- Hitzak eta marrazkiak markatu (“X” idatzi, zenbaki bera jarri...).

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

# FAMILIEN KOADERNOAREN ERABILERA







## PAUSOAK:

1. Familiei koadernoen helburuak eta erabilera azaldu (ikus beheko laukia).
2. Eskolan landu ondoren, familiei koadernoak bidali: USBan, e-mailez, eskolako web-ean ala plataforman zintzilikatu, inprimatuta banatu...
3. Koadernoaren ariketak familiekin hitz egin, partekatu eta hausnartzeko erabili.

## TOPAGUNEA DA, AUKERA BAT, EZ “EGINBEHARRA”

→ Eskolako lanetaz hitz egiteko eta hausnartzeko aukera.
→ Elkar ezagutzeko eta harremanak sendotzeko aukera.
→ Esperientziak, sentimenduak, balioak, erabakiak... BIZITZA partekatzeko aukera.

→ Ez dira erantzun bakarra eta egiteko modu bakarra duten ariketak.
→ Ez da beharrezkoa dena idaztea, dena erantzutea eskolara bidaltzeko.
→ Helburua, familian erabiltzea da, eskolaren laguntza eta jarraipenarekin.

# ONLINE MATERIALA ERABILTZEKO INFORMAZIO GEHIAGO

## “ONLINE JARRAIBIDEAK” pdf-a

- Irakasleak materiala eta jolasak ezagutzeko pausoak.
- Ikasleek materiala eta jolasak ezagutzeko pausoak.
- Jolasak erabiltzeko pausoak.
- Hausnarketa: jolasaren laburpena eta koadernoak nola erabili.
- Online jolasteko ohar teknikoak.
- Irakaslea eta ikasleak online jolasetan alta emateko pausoak.
- Nabigatzailean leiho independienteak nola sortu.


NAHIKO! PROGRAMA JARRAIBIDEAK

NON DAGO MATERIALA?
http://www.emakunde.euskadi.eus/nahikoeu/-/inf

- **Sarrera librea**
  Nahiko! programako material eta jolas guztiak Emaku
  inolako pasahitzik gabe erabiltzeko.
- **Zikloka antolatuta dago informazioa**
  LHko lehenengo zikloa, bigarren zikloa eta hirugarre

Informazio gehiago
Lehenengo zikloa
Bigarren zikloa
Hirugarren zikloa

- **Ziklo bakoitzean 6 Unitate Didaktiko**
  Unitate Didaktiko baten adibidea.

1 UD: Gorputza. Berdintasunez Hazi.

HELBURUA: Sexua gorabehera, neska-mutilek ezaugarri fisiko na
eta esperimentatzea, antzeko trebetasunak eta gaitasunak ikasi e
errespetagarriak, osasungarriak, baliotsuak eta beharrezkoak no
bizitzarako.

- Irakasleen gida (PDF)
- Ikasleen koadernoa (PDF)
- Familiaren koadernoa (PDF)
- Abestia (ZIP, 4.1 MB)

Ipuina:

- Luze eta Txiki (PDF)
- Luze eta Txiki (AVI, 30 MB)
- Luze eta Txiki (WMV, 22 MB)

**Jolasa: Gorputzaren altxorra.** Konektibitatea baieztatu

- ONLINE BERTSIOA
- Deskargatzeko bertsioa: Karta-sorta 1 (PDF) | Karta-sorta 2 (PDF) | Karta-sorta 3 (PDF) | Karta-sorta 4 (PDF)

1

**E. ERANSKINA: INTERNETEN BIDEZ ONLINE JOLASTEKO JOLASAK**
E2. IRAKASLEA ETA IKASLEAK ALTA EMATEKO PAUSUAK

**16. JOLASTEKO ERA AUKERATU**
Ikasleen adina eta kopurua, ordenagailu kopurua edo jolasarekin aritzen diren zenbatgarren aldia den kontuan harturik, **jolasteko era moldatu daiteke** (ikus 6.atala, 5.orrialdean):

a) Arbela digitala edo proiektorearekin. Ahal bada, 2 ordenagailurekin. Bakarra badago, **garrantzitsua: leiho independienteak zabaldu behar dira (ikus E3 eranskina).**
b) Taldeka ordenagailu bakoitzean. Binaka, adibidez.
c) Banaka ordenagailu bakoitzean.
d) Jolas talde eta partida ugari. Halakoetan, lehenengo talde bat osatu eta jolasten hasi. Ondoren, 2.taldea sortu eta jolasten hasi. Segi horrela, behar adina talde sortuz.

**OHARRA**: Jolasak, **gehienez 12/14 jokalari** jolasteko prestatuta daude. Hau da, pantailan aurpegitxo baten bidez 12/14 jokalari jaso eta bere txanda noiz den adierazteko.

**17. IRAKASLE ETA IKASLEAK ALTA EMATEKO PAUSOAK**
1- **Hizkuntza** jokalari bakoitzak aukera dezake, eta jokaldi berean batzuk hizkuntza batean eta besteak beste batean aritzeko aukera ematen du.

SENTIMENDUEN ALTXORRA

2- Jolas bakoitzean **orden honetan** eman behar dira altan irakaslea eta ikasleak. **Kontuan izan ezin direla espazioak erabili, soilik hizkiak eta zenbakiak onartzen ditu.**

3- **Irakaslearen alta** datu hauek betez egiten da:

Sar ezazu zure izena edo ezizena eta sakatu "Sartu" jokoan sartzeko.
IRAKASLEA
(sartu ikastetxearen izena)
1 Joko-taldea
Ikastetxearen izena eta joko-taldea sartu (zure joko-taldea une honetan jolastuko duen ikastetxeko talde bakarra baldin bada 1 zenbakia utzi dezakezu). GARRANTZITSUA: ikastetxearen izena eta joko-taldea jokalari guztiei eman behar zaie irakaslearekin batera jolastu dezaten.

**Kontuan izan guztiek berdin-berdin idatzi beharko duzuela ikastetxearen izena.**

10

NAHIKO

EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO